Ordiziako Udala

2025ITGB0009

Ordizian, 2025eko maiatzak 25ean , Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día 29 DE MAYO DE 2025 se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**:

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garziandia (EH BILDU ORDIZIA)
Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Viviana Angélica Murillo Cazar (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana Mª Sánchez Herráez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

**Ordezko IDAZKARIA:**

Lide Gurrutxaga Urbieta (Kontratazio eta Ondareko AOT)

**BESTELAKO BERTARATZEAK:**

Gregorio Iruretagoyena Echaniz (EAJ-PNV)

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2025.05..08 ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.

2. Kontratu txikien kontu ematea (2025SCTX0027,29,30. Ebazpenak: 2025/0852-2025/0891-2025/0937).

3. Apirileko kudeaketa txostenak.
4. Apirileko ordainketak.

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1. Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 8.05.2025.*

*2. Dación de cuenta de contratos menores. (2025SCTX0027,29,30. Ebazpenak: 2025/0852-2025/0891-2025/0937).*

*3. Informes de gestión del mes de abril.*
*4. Pagos mes de abril.*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| 5.- Informazioa ematea. | *5.- Información.* |
| 5.1.Zerbitzuetako gora-beherak | *5.1.- Incidencias servicios* |
| 5.2.Merkataritza plana eta Ordizia Zabalik | *5.2.- Plan Comercio y Ordizia Zabalik* |
| 5.3. Majori | *5.3.- Majori* |
| 6.- Delegaritzetako aktak. | *6.- Actas de Delegaciones.* |
| 7.- Zenbait txosten eta eskaera. | *7.- Informes y solicitudes varias.* |
| 8.- Galde-eskeak. | *8.- Ruegos y preguntas* |

.- P21eko igogailuan patineteekin igotzen dela jendea
.- Lukusain plazan baloiakin jolasteagatik balonazoak.
.- Ordizia eremu ez tentsionatua eta udal laguntzen aukerak.
.- 2024ko ongizateko memoria laister bukatzeke.
.- Eskerrak zinegotzi bati parte hartzen utzi izana TGBan.
.- Ekainak 11an plazaren mendeurrena ospakizuna.

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 16:30etan** **AMAIERA ORDUA: 17:50etan**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2025.05.08ko bilkurako akta onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 08.05.2025***

Proposamena

*Propuesta*

**2025.05.08ko ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 08.05.2025***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ORDIZIA ORAIN - ELKARREKIN PODEMOS 1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Kontratu txikien kontu ematea (2025SCTX0027,29,30. Ebazpenak: 2025/0852-2025/0891-2025/0937).**

***2.- Dación de cuenta de contratos menores. (2025SCTX0027,29,30. Ebazpenak: 2025/0852-2025/0891-2025/0937).***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Joseba Aranburuk adierazten du Urdaneta eskolako sabaiarena bi kontratutan ageri dela.

*Joseba Aranburu señala que lo del techo de la escuela Urdaneta figura en dos contratos.*

Alkateak dio kontratua txikietan hiru dekretu daudela eta bi aldiz azaltzen dela, 891. Dekretuen Urdaneta eskolako

*El alcalde responde que en el contrato menor hay tres decretos y que aparece dos veces, Decreto 891. Dirección de la*

zuzendaritza lanak eta 937. Dekretuan exekuzio zuzendaritza. Obra konplejua denean zuzendaritza bikoitza egoten dela dio, Arkitektoa eta Aparejadorea izaten direla, horregatik agertzen dela bitan.

*Escuela de Urdaneta y Decreto 937. Dirección de ejecución. Señala que cuando la obra es compleja suele haber una doble dirección, que suele ser el Arquitecto y el Aparejador, por eso aparece en dos contratos.*

Joseba Aranburuk dio Jakesen ere berdina gertatzen dela eta duplikatuta ikusten zituela kontzeptuak.

*Joseba Aranburu dice que en Jakes ocurre lo mismo y que veía duplicados los conceptos.*

Alkateak dio Jakesen kasuan igogailua sartzeko proiektua egin zela eta orain diru laguntza eskatu dela. Orain Arkitektoari aurrekontua eguneratzeko eskatu zaiola. Aldundira eskatu da diru laguntza. Aukera emateko da gizarte zerbitzu integralak eman ahal izateko edifizio bertan eta hori da diru laguntza lerroan sartu dena.

*El alcalde responde que en el caso de Jakes se hizo un proyecto para introducir el ascensor y ahora se ha pedido una subvención. Ahora se ha pedido al Arquitecto que actualice el presupuesto. Se ha solicitado subvención a la Diputación. Se trata de posibilitar la prestación de servicios sociales integrales en el edificio y eso es lo que se ha incluido en la línea de subvenciones.*

Joseba Aranburuk dio ulertuta duela diru laguntza horiek 2023koak direla eta aldatutako leihoak ere sar daitezkeela hor.

*Joseba Aranburu dice que tiene entendido que estas subvenciones son de 2023 y que ahí también pueden entrar las ventanas cambiadas.*

Alkateak erantzun du gastu guztiak sartu direla diru laguntzan.

*El Alcalde responde que se han incluido todos los gastos en la subvención.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Apirileko kudeaketa txostenak.**

***3.- Informes de gestión del mes de abril.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkateak dio Lurralde eta Herritarren arloan gehiago kostatzen ari dela txostenak antolatzea, baino antolaketan nahiko koordinatu dela eta dinamika

*El alcalde dice que está costando más organizar los informes de Territorio y Ciudadanía, pero que el de Organización está bastante coordinado y que tienen*

hartua dutela. Hasieran lehenengo astean aurreko hilabetekoa pasatzen zen, baino orain erabaki da plenoarekin koinziditzen duen TGBean kudeaketa txostenak ekartzea.

*cogida la dinámica. Al principio la primera semana del mes se repasaba la información del mes anterior, pero ahora se ha decidido presentar los informes de gestión a la JGL que coincida con el pleno.*

Esaten du bagoazela pixkat egoera islatzen, informazioaren jarraipena egiteko. Gastu kontrola ere gehiago emango dela esaten du, ikusteko nola goazen, plan ekonomiko finantzarioak mugak ekarriko dituelako. Kontsultak egiten dabiltza nola antolatu dezaketen plana bi urtera, hiru urtera, markoa zein den argitutakoan denekin eseriko direla dio.

*Dice que se va organizando un poco la situación para poder hacer un seguimiento de la información. También dice que se realizará mayor control de gasto, para ver cómo vamos, porque el plan económico financiero traerá limitaciones. Están haciendo consultas sobre cómo pueden organizar el plan cara a dos años y a tres años, dice que cuando se aclare cuál es el marco se sentarán con todos.*

Sailburuei esan zaie sarreren eguneraketa egin behar dutela eta abenduak 31rako sail bakoitzeko aurrekontutan ze itxiera aurreikusten den, ikusteko 2025rako jartzen dela betetzen den edo ez.

*A los Responsables de los departamentos se les ha dicho que tienen que hacer la actualización de los ingresos y qué cierre se prevé en los presupuestos de cada departamento para el 31 de diciembre, para ver si para el 2025se cumple o no se cumple.*

Joseba Aranburuk galdetzen du laugarren orrialdeko grafika udal aurrekontua den 2025ekoa edo orain arte egin dena den.

*Joseba Aranburu pregunta si el gráfico de la cuarta página es el del presupuesto municipal de 2025 o el que se ha hecho hasta ahora.*

Alkateak dio hori konprometitua dela, gauzatze maila dela, gastuaren gauzatze maila arloka exekuziokoa izango litzakeela, baino bazpare galdetuko duela.

*El alcalde dice es comprometido decirlo, que es el grado de ejecución, que el grado de ejecución del gasto sería de ejecución por áreas, pero que preguntará por ello para asegurarse.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Apirileko Ordainketak**

***4.- Pagos del mes de abril***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkateak dio azken hilabeetan bezela apirileko banku ordainketak pasa direla, zerbait galdetzeko badago.

*El alcalde dice que como en los últimos meses han pasado el listado de los pagos bancarios realizados en el mes de abril, si hay tienen alguna pregunta.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5..- informazio ematea**

***5.- Información.***

**5.1.- Zerbitzuetako gora-beherak**

Maitane Alvarezek dio hainbat galdera egin zirela aurreko lurralde batzordean eta aurreko tokiko gobernuan. Alde batetik, markesinan gaia zegoela. Esaten du eraikinen garbiketa zerbitzua lizitatu zela eta enpresa berria aurki hasiko dela lanean, tarte honetan EULEn lanak bukatzen egon dela eta lan jarduna ez dela egokia izan dio azken bi hilabeteetan. Adierazten du espero duela orain garbiketa hori egin ahal izatea.

*Maitane Alvarez dice que se hicieron varias preguntas en la anterior Comisión de Territorio y en la Junta de Gobierno Local. Por un lado, estaba el tema de la marquesina. Dice que se licitó el servicio de limpieza de edificios y que la nueva empresa empezará a trabajar en breve, que EULEN ha estado finalizando los trabajos y que la actividad laboral no ha sido la más adecuada en los dos últimos meses. Indica que espera que pueda realizar ahora esa limpieza.*

Beste aldetik dio estolderiaren jarraipena dela eta horiek oso maiz garbitzen direla, batzuetan baliabide pertsonal gutxigatik ez egitea baino lanen jarraipena egiten dela. Saiatzen dabiltzala dio klima aldaketa dela eta plangintza eguneratuko dutela gainezka ez egiteko estolderiek.

*Por otro lado, señala que en cuanto al alcantarillado, la limpieza del mismo se realiza frecuentemente, puede que a veces no se haga por falta de personal, pero el seguimiento se realiza. Dice que se esfuerzan para que debido al cambio climático evitar desbordamientos y que actualizarán la planificación.*

Barrena parkeko garbiketari dagokionez esaten du ostiral eta larunbat gauetan

*En cuanto a la limpieza del parque Barrena comenta que los viernes y sábados por la*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

gazteentzat gune erosoa dela eta arazoak sortzen direla. Saiatzen direla igande goizetan garbiketa egiten, baino baliabideen baitan egiten dela, saiatzen direla iristen. Erabaki da kautxua jartzea elementu berrian, pinua berrerabili egingo dela. Sentsazioa dela ez dagoela zainduta.

*noche es una zona cómoda para los jóvenes y surgen problemas. Intentan hacer la limpieza los domingos por la mañana, pero se hace dentro de los recursos disponibles, pero intentan llegar. Se acuerda poner caucho en el nuevo elemento (juego?), reutilizar el pino. La sensación es de que no está cuidado.*

Altamirako pintadei dagokienez dio pendiente dutela Majoriko garbitzaileekin garbitzea.

*En cuanto a las pintadas de Altamira dice que tienen pendiente limpiar con el personal de limpieza de Majori.*

Pendiente darela dio baita ekain hasiera erdirako hainbat pintada kentzea. Berritze gunean ere azaldu direla pintadak, baino hori ez dela udal eskumenekoa eta esan zaiela eurei garbitzeko.

*También dice que tienen pendiente eliminar varias pintadas para mediados de junio. En Berritze gunea también han aparecido pintadas, pero eso no es de competencia municipal y se les ha dicho a ellos que lo limpien.*

Altamirako argien inguruan konponduta dagoela gaia dio eta Majoriko argazkiena gero komentatuko dutela.

*El entorno de la iluminaciónde Altamira dice que el tema está resuelto y que lo de las fotos de Majori lo comentarán después.*

Gregorio Iruretagoyenak galdetu du listorren inguruan.

*Gregorio Iruretagoyena pregunta sobe las avispas.*

Maitane Alvarezek dio txostena bidali zela eta kanpaina bukatu zela.

*Maitane Alvarez dice que se envió el informe y que se acabó la campaña.*

Gregorio Iruretagoyenak galdetu du Domingo Unanueko kanastagatik.

*Gregorio Iruretagoyena pregunta por la canasta de Domingo Unanue.*

Maitane Alvarezek dio eskatzeko dagoela eta kokapena definitzeko.

*Maitane Alvarez le responde que está por hacerse el pedido y definir la ubicación.*

Maitane Alvarezek dio Zerbitzutako Aparejadorea bajan egon dela, baino badirudiela edo uzte duela datorren astean hasteko moduan izango dela eta espero duela nabaritzea.

*Maitane Alvarez dice que el Aparejador de Servicios ha estado de baja, pero que parece que está en condiciones de empezar a trabajar la semana que viene y que espera que se note.*

Alkateak jakinarazi du aste honetan eta aurrekoan eskaerak paralizatuta izango dituztela gastu araua dela eta, tristea dela baino nahiz eta dirua eduki gastu arauarekin ezin dela nahi dena gastatu.

*El alcalde informa que tanto esta semana como la anterior tendrán paralizados los pedidos por la norma de gasto, que es triste que aunque se tenga dinero con la norma de gasto no se puede gastar lo que se*

Aldundiarekin harremanetan daudela dio, irtenbideak aztertzeko.

*quiera. Dice que están en contacto con la Diputación para estudiar soluciones.*

Maitane Alvarezek dio listor asiatikoan gaira bueltatuta, bera ez zela batzorde horretan egon baino esaten du Adurrek trasladatu ziola identifikazioarena eta kontuan izango dutela hurrengo urterako. Kanpaina hilabetekoa izan dela dio eta txostena bidali zela, baino galderarik bada berak trasladatuko duela.

*Maitane Alvarez dice que volviendo al tema de la avispa asiática, ella no estuvo en esa comisión sino que estuvo Adur y le trasladó lo de la identificación y que lo tendrán en cuenta para el año que viene. Dice que la campaña ha sido de un mes y que se envió el informe, pero que si hay alguna pregunta la trasladará.*

Eltxo tigrearen inguruan dio osasun sailarekin harremanetan daudela eta Osakidetzak eskatuta informazioa eman zela, aurreko urtean tranpak egon zirela baino ez zekitela. Orain sentsibilizatu nahi dela jendea eta esku-orria prestatu dutela osasun sailetik zabaltzeko. Oso esku-orri praktikoa atera dutela, ulerterraza eta herritarren artean zabalduko dutela dio. Osasun sailak hartu duen ardura izan dela komentatu du eta beraiek trasladatzen ari direla.

*En cuanto al mosquito tigre dice que están en contacto con el departamento de salud y que les informaron que a petición de Osakidetza, el año anterior hubo trampas, pero no saben más. Ahora se quiere sensibilizar a las personas y han preparado un folleto para difundirlo desde el departamento de salud. Dice que han sacado un folleto muy práctico, fácil de entender y que lo difundirán entre la ciudadanía. Comenta que ha sido una responsabilidad que ha adoptado el Departamento de salud y que ellos lo están trasladando.*

**5.2.- Merkataritza plana eta Ordizia Zabalik**

Maitane Alvarezek dio merkataritza plana dela eta martxan dagoela, kontratu txikia egin dela hiru aurrekontu eskatu ostean eta IKEI enpresak irabazi duela. Diagnosia egin dutela dio eta orain jendearen ohiturak ikusi nahi dituztela herriko merkataritzari bizia emateko Datorren astetik aurrera inkesta bat egongo dela eskuragarri dio eta herritarrak animatzeko betetzera. Sare sozialetatik ere zabalduko da, interesatzen da segmentu ezberdineko jendeak egite duena jasotzea. Espero dela udazkenerako plenora ekartzea.

*Maitane Alvarez dice que es un plan comercial y que está en marcha, que se ha hecho un contrato menor tras pedir tres presupuestos y que ha ganado la empresa IKEI. Dice que han hecho un diagnóstico y que ahora quieren ver los hábitos de la gente para dar vida al comercio local Dice que a partir de la semana que viene habrá una encuesta disponible y a rellenar para animar a la ciudadanía También se difundirá por las redes sociales, interesa recoger lo que gente de diferentes segmentos hace. Que se espera traerlo al pleno para otoño.*

Ordizia zabalik-ei dagokionez dio 2024tik datozen zerbitzuak darela eta aurten laguntzen jarraituko dutela, baino orain

*En cuanto a Ordizia Zabalik dice hay servicios que vienen de 2024 y que van a seguir colaborando, pero que ahora saldrá*

deialdi berria aterako dela. Oinarriak ez direla aldatu dio, bakarrik igo dutela erosketa egiten dutenentzako laguntza eta baita sartu dutela geroz eta gehio ematen den formula, erosketa aplazatua edo deitzen dena.

*una nueva convocatoria. Dice que las bases no han cambiado, que solo han subido la ayuda para los que hacen la compra y que también han introducido la fórmula que cada vez se da más, lo que se llama compra aplazada.*

**5.3.- Majori**

Alkateak dio alde batetik astelehen honetan hasi dela gerente berria, Itziar. Adierazi du kontrastatu nahi duela, hurrengo astean, Tokiko Gobernu Batzordearen egunean jarraian Administrazio Kontseilua egiteko hainbat gai daudelako. Gai batzuk pendiente darela dio: 2024ko kontuen formalizazioa, Majoriko zerbitzuaren luzapena etab.

*El alcalde dice por un lado que este lunes ha comenzado la nueva gerente, Itziar. Indica que quiere acordar que el día de la Junta de Gobierno Local, se podría convocar a continuación el Consejo de Administración ya que hay varios temas pendientes a tratar: formalización de las cuentas de 2024, prórroga del servicio de Majori, etc.*

Beste alde batetik dio gai batzuetan ez dakiela fede txarra dagoen edo. Bere iritziz aparkalekutik ez dagola koskarik eta majori irisgarria dela dio. Anexoko zikintasuna dela eta asteburuko partiduengatik zaborra pilatzen dela eta hori astelehenean garbitzen dela esan du.

*Por otro lado, dice que no sabe si hay mala fe en algunos temas. Opina que en el parking no ve que haya desniveles o baches y que Majori es accesible. En cuanto a la suciedad del Anexo y a que se acumula basura por los partidos del fin de semana, y que se limpia la zona los lunes.*

Itoginen gaiari helduz Alkateak esan du taberna inguruan oraingoan ez dela sartu, ez dakitela zehatz mehatz, baino arazoa eman dela kanaloien arazoak egon direla eta gainditu egin zirela. Arazoa dela kanaloietan obragatik sektorizatuta dagoela eta kontinuitaterik ez egotera eragiten dela, ez dela ebakuatzen eta akumula du egiten dela. Orain arte ez dela egon arazorik hor esan du eta obratik hola eginda dagoela. Begiratzen dabiltzala dio konponbidea emateko.

*En cuanto al tema de las goteras, el Alcalde dice que en la zona del bar esta vez no ha entrado agua, que no saben con exactitud, pero que el problema ha sido que ha habido problemas de canalones y que se superaron. El problema es que los canalones están sectorizados por obra y provoca falta de continuidad, no se evacua y se acumula el agua. Dice que hasta ahora no ha habido ningún problema ahí y que así está hecha la obra. Señala que lo están mirando para solucionarlo.*

Pabloren etxeari dagokionez Alkateak garbiketak egiten dabiltzala komentatu du. Obretako aparejadoreak arduratu dela dio eta kontenedore ezberdinak ekarri direla materiala ateratzeko, hiru kamioi atera direla. Obra bukatu gabe zeola dio,

*En cuanto a la casa de Pablo el Alcalde comenta que están haciendo limpiezas. Dice que se ha encargado el Aparejador de Obras y que se han traído diferentes contenedores para sacar el material. Han salido tres camiones. Dice que la obra no*

baino aste honetan dena garbitu dutela. Kanpoko espazioan pentsatzen dabiltzala dio bailatzea, ikusita institutuko umeak ibiltzen direla. Besta aldetik begetazioa kentzea edo beste era atera mantentzea aztertzen dabiltzala esan du.

*está terminada, pero que esta semana han limpiado todo. Dice que piensan vallar el espacio exterior, viendo que el alumnado del instituto hay*

*Por otro lado, piensan en quitar la vegetación o hacer el mantenimiento de otra manera.*

<u>Gregorio Iruretagoyenak</u> dio aurreko bileran aipatu zuela argazkikoa, elbarritutako pertsona bat majorira juten denean institututik ez dela irizten, hor dagoela arazoa dio, ez majoriko sarreran. Aipatu du duela denbora dexente aipatu zutela institutu pareko zebra-bidean irisgarritasun ez zela betetzen eta argazkiak aurkeztu zituela.

*<u>Gregorio Iruretagoyena</u> dice que en la reunión anterior mencionó lo de la foto, que cuando una persona minusválida acude a Majori no se considera que vaya desde el instituto, que ahí está el problema, no en la entrada de Majori. Comenta que hace bastante tiempo comentaron que en el paso de cebra de enfrente del instituto no se cumplía la accesibilidad y presentó las fotos.*

<u>Maitane Alvarezek</u> dio konpondu behar dela, asko darela konpontzeko.

*<u>Maitane Alverez</u> señala que se va a arreglar. Hay muchos por arreglar.*

<u>Joseba Aranburuk</u> dio elbarritutako pertsona bat jun zitzaiela beraiei eta Majorira juteko oztopo hori zuela esan ziela.

*<u>Joseba Aranburu</u> señala que una persona con discapacidad les informó del problema que tenía para ir a Majori.*

<u>Viviana Angélica Murillok</u> Maitaneri galdetu dio ea ondo iruditzen zaion iristen zaizkien mantentze lanetako gauzak postaz bidaltzea, edo ea herritarrek bidaltzen dituzten gauzak igotzeko driveren bat gaitu daitekeen.

*<u>Viviana Angélica Murillo</u> pregunta a Maitane si le parece bien mandar por correo las cosas de mantenimiento que les llegan, o si se puede habilitar algún drive en donde se puedan subir las cosas que envíen los ciudadanos.*

<u>Maitane Alvarezek</u> dio horrela emailez egiten bada gero kejak talde batera pasatzen dituela gauzak bideratzeko. Berari bidaltzeko eta Jon Ander kopian jartzeko.

*<u>Maitane Alvarez</u> dice que, si se hace así por email, parasarán las quejar a un grupo que las gestione. Que se las remita a ella y poner a Jon Ander en copia.*

<u>Alkateak</u> dio aplikaziotik sartzen diren kexak zuzenean Miryamek taldera bideratzen dituela.

*<u>El Alcalde</u> señala que las quejas se presentan por la aplicación Myriam las dirige directamente al grupo.*

<u>Viviana Angélica Murillok</u> dio hemen gaudenetako inork ez duela fede txarrez ekintzarik egiten, zerbait gertatzen bazaigu guk nahi duguna da nolabait zuei

*<u>Viviana Angélica Murillo</u> dice que ninguna de las que estamos aquí hacemos actos con mala fe, si nos pasan algo lo que queremos nosotras es ayudaros de alguna*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

laguntzea eta herritarren eskaerak jakinaraztea.

*manera y haceros saber las peticiones de la ciudadanía.*

Alkateak dio berak ere hori sinistu nahi duela, baino azken majoriko ituteen harira 2023ko bideoa zabaltzen egon zirela ituteak ilustratzeko, beraz berari ere ze pentsatua ematen diola. Kasu honetan bereziki pilaketa batzuk daude eta gauza asko daudela oso aspalditik datozenak

*El alcalde dice que él también quiere creer eso, pero que, al hilo de las últimas goteras, estuvieron difundiendo el vídeo de 2023 para ilustrar las goteras, por lo que a él también le da qué pensar. En este caso especialmente hay algunas aglomeraciones y hay muchas cosas que vienen de muy antiguo.*

Ana Mª Sánchezek esan du gustatuko litzaiokeela berriro gogoratzea txosten bat izan daitekeenean eskatu zutela, datak eta gainerakoak jasotzen dituen kronograma bat, hori nola geratu den, nola egingo den, etab.

*Ana Mª Sánchez dice que le gustaria volver a recordar que solicitaron cuando pueda ser un informe, un cronograma con fechas y demas, de como se ha quedado eso, como se va a acturar etc.*

Alkateak dio horretan dagoela gerente berria eta horregatik administrazio kontseilua deituko dela baita, bera ezagutu eta planteatzeko pendiente dagoena. Administrazio Kontseilua hartarako ere badela dio. Adurrek dio adierazi zaiola nundik gatozen eta ze nahi den.

*El alcalde dice que en eso está la nueva gerente y que por eso se convocará el Consejo de Administración, para conocerla y plantear lo que está pendiente. Dice que el Consejo de Administración también está para eso. Adur dice que se le quiere informar de la trayectoria y los propósitos a cumplir.*

Maitane Alvarezek dio pazientzia pixkat eman behar zaiola.

*Maitane Alvarez dice que hay que tener un poco de paciencia.*

## 6.- Delegaritzetako aktak

## *6.- Actas de Delegaciones.*

Ez ziran izan.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## 7.- Zenbait txosten eta eskaera

## *7.- Informes y solicitudes varias*

Ez ziran izan.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

## 8.- Galde-eskeak

Joseba Aranburuk dio gauza dela gauzen ardura denona dela eta orain etortzen bada herritar bat kexa batekin hemen planteatzen dela, kontua ikusitako gauzak azaltzea eta konpontzea dela.

Bestalde, dio P21eko igogailuan patineteekin igotzen dela jendea, kexak daudela eta ez dakiela onartuta dagoen. Hala bada eta bestela kartelen bat jartzeko dio.

Eta gero komentatu du galdetu zaiola lukusain harategian aurrekoan kristalean balonazoa jo ziela eta ia letreroa berek jarri behar zuten edo udaletxeak jarri behar zuen. Kartel batzuk badarela aurretik.

Maitane Alvarezek dio bilerak egin direla bizilagunekin eta beraiek taldean aztertuta umeei baloiarekin ez jolasteko esatea mina ematen diola, beste kontu bat dela ze baloi, nola eta ze baldintzetan. Esaten du buelta bat ematen dabiltzala horri. Derrigortzea ez du ikusten.

Ainhoa Jimenezek dio Oinherrirekin harremanetan jarri zirela gai hau lantzeko. Haurrei debekatzea plazan jolastea kontraesankorra dela dio eta handik adierazitakoari jarraiki legez kanpokoa ere izan daitekeela esan du. Beraiekin kontrastatzen dabiltzala dio.

Alkateak dio Lukusainekoa dela momentu honetan elkarbizitzan arazo gehien sortzen dituen parkea.

Ana Mª Sanchezek esan du Ordizia eremu ez tentsionatu izendatu ondoren jakin nahi dutela ea aukerarik badagoen, gazteei laguntzeko programaren bat handitzeko egiten den etxebizitza

## *8.- Ruegos y preguntas*

*Joseba Aranburu dice que la cuestión es que las responsabilidades son de todos y que si ahora viene un ciudadano con una queja, ésta se plantea aquí, la cuestión es explicarlas y solucionarlas.*

*Por otro lado, dice que en el ascensor del P21 la gente sube con patinetes, que hay quejas y que no sabe si está permitido. Si no es así, dice que pongan algún cartel.*

*Añade que se le ha preguntado, al hilo del balonazo en el cristal a la carnicería de Lukusain si el letrero lo tenían que poner ellos o lo tenía que poner el ayuntamiento. Que hay unos carteles desde antes en la plaza.*

*Maitane Alvarez dice que se han hecho reuniones con los vecinos y que analizando ellos en su grupo el tema, le duele el que se diga a los niños que no jueguen con el balón, que otra cosa es qué balones, cómo y en qué condiciones. Dice que le están dando una vuelta. La coacción no no le gusta.*

*Ainhoa Jiménez dice que se pusieron en contacto con Oinherri para tratar este tema. Dice que prohibir a los niños jugar en la plaza es contradictorio y que puede ser ilegal. Dice que lo están contrastando con ellos.*

*El Alcalde señala que de momento Lukusain plaza es el espacio que más problemas de convivencia está generando.*

*Ana Mª Sánchez dice que tras la declaración de zona no tensionada de Ordizia quieren saber si cabe la posibilidad, si se puede tener en cuenta en el plan de vivienda que se elabora de cara a*

planean kontuan har daitekeen, egungo egoera zein den eta alokairuen inguruan ikusi nahi dutela nola eragiten ari den etxebizitza hutsaren errekargua, eta lokalak etxebizitza bihurtzen saiatzen diren enpresak, baldin eta modu arinagoan egin badaiteke... eta, bestalde, esan du 2025eko apirileko ebazpen bat dagoela energia berriztagarrien dirulaguntzei buruz, energia komunitateak abian jartze aldera, etab.

*incrementar algún programa de ayuda a personas jóvenes, ver la situación actual y en torno a los alquileres ver cómo está repercutiendo el recargo en la vivienda vacía, y aquellas empresas que intentar reconvertir locales en vivienda si se puede hacer de algún modo más ágil y por otra parte comenta que hay una resolución de abril de 2025 de subvenciones de energía renovables de cara a poner en marcha comunidades energéticas etc.*

Alkateak dio tamalez ez dagoela ondo arautua datuen kontua eta kontsulta eginda momentuz eremu tentsionatua lortzetik kanpotik geratzen dela, baino horrek ez duela kentzen planakin jarraitzea. Beste herri batzuetan bezela aplikazio bat dagoela etxebizitza hutsen jarraipena egiteko eta aurrekontua eskatu dela dio. Helburua da etxebizitza ekintza plana onartzea. Lokalak etxebizitzara aldatzeko aukera ordenantzan jasota egon behar dela dio. Kontraraziotik ere aztertzen ari dira plan orokorraren lizitazioa ateratzea eta plan hauek ere aintzat izatea oinarritzat.

*El alcalde dice que lamentablemente no está bien regulado el tema de los datos y que, de momento, una vez realizada la consulta, queda fuera de conseguir la zona tensionada, pero que eso no quita seguir con el plan. Dice que como en otras localidades hay una aplicación para hacer un seguimiento de las viviendas vacías y que se ha pedido presupuesto. El objetivo es aprobar el plan de acción de vivienda. Dice que la posibilidad de cambiar los locales a vivienda tiene que estar recogida en la ordenanza. Desde contratación también se está estudiando sacar la licitación del plan general y añade que estos planes se tengan en cuenta como base.*

Mª Sánchezek galdetu du ea baldintzak betetzen ez zirela dioen ebazpena dugun.

*Ana Mª Sánchez pregunta si tenemos la resolución de que no se cumplían los requisitos.*

Alkateak dio eskatuko dela. Datu estatistikoak direla dio eta Etxebizitza Sailaren txostena dela.

*El Alcalde dice que se pedirá el informe. Dice que son datos estadísticos y que es un informe del Departamento de Vivienda.*

Ainhoa Jimenezek dio 2024ko ongizateko memoria oraindik bukatzeko dutela eta eduki bezain pronto denen eskura jarriko dela.

*Ainhoa Jiménez dice que el informe de bienestar de 2024 todavía está por terminar y que tan pronto como se tenga se pondrá a disposición de todos.*

Viviana Angélica Murillok eskertu egin du Gregoriori parte hartzen utzi izana, eta uste du batzarrean osoko bilkurako beste kide batzuei parte hartzen utzi behar zaiela, gai garrantzitsuak ekartzen

*Viviana Angélica Murillo agradece que se haya permitido la participación de Gregorio, piensa que se debe permitir en la Junta la participación a otros miembros del pleno*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

dizkigutela eta denoi interesatzen zaizkigula esan baitu.

*porque dice que nos traen temas importantes y que nos interesan a todos.*

<u>Alkateak</u> amaitzeko komentatu du ekainak 11an ospakizuna egingo dela plazaren mendeurrena ospatzeko, baino aurreko larunbatean, ekainak 7an, herriko eragileek antolatutako ikuskizuna egingo dela eta luntxa egongo dela ekitaldi instituzional txiki gisa.

*<u>El alcalde</u> finaliza su intervención comentando que el 11 de junio se celebrará la celebración del centenario de la plaza, pero que el sábado anterior, 7 de junio, se celebrará el espectáculo organizado por los agentes locales y añade que se ofrecerá un lunch como pequeño acto institucional.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, ordezko Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria sustituta, certifico.*

| **Sinatzaileak**<br>Firmantes | **Ordezko IDAZKARIA /** SECRETARIA en sustitución<br>Lide Gurrutxaga |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARQAFC.VfaD |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus